

Aizarna

Iglesia de Aizarna eliza

Ondare arkitektonikoa

Patrimonio arquitectónico

XVI. mendearen hasieran Aizarnan parrokia berria eraikitzeko erabakia hartu zuten. Hargintza-lana, portadak, dorrea eta korua barne, XVI. mendean egin zen oso-osorik. Tenpluak burualde oktagonala du, 14 metroko zabalera eta altuera bereko hiru ganga. Presbiterioaren ondoan Iraeta eta Alzolaras de Suso familien kaperak daude.

Elizaren oinplanorako diseinua Pedro Alcega harginak marraztu zuen. 1529an Zestoako Juan Amilibia hargin-maisua kontratatu zuten hormetako hargintza-lan guztia egiteko, eta horretan aritu zen 1555. urtera arte. Martín Aramendia arduratu zen harrizko estalkia ixteaz.

Kapera nagusiko gangak giltzarri bat du erdian, eta bertara hamaika gurutzadura-nerbio iristen dira. Habearteko beste gangek ezohiko diseinua dute, okerdura ahur eta ganbilekin. Horien forma biribilek Errenazimentuko sabai nerbi-dunetara garamatzate. Estilo klasikoko lau pilastra kaxeztatuz eutsitako koru azpiko gangak tertzelete hirukoitzen diseinua du, Gipuzkoako kasu bakarra. Arkitekturako ezaugarriarik modernoena habearteko gangei eusteko kapitel toskanarreko zutabe klasikoak erabiltzea da.

Harrizko eskailera batetik igotzen den koruan. Juan Manuel Betolazak egindako barroko estiloko organo bat (1792) eta zurezko aulkiteria kontserbatzen dira. Gainera, elizako jatorrizko harrizko sagraioa ikusten da koruko horman txertatuta.

Dorrea eta kanpandorrea Gracian Egañak eraiki zituen Domingo Cardaberazen diseinuarekin. Erlojua, aldiz, Benito Yeregik egin zuen 1883an.

A comienzos del siglo XVI se encarga la construcción de una nueva parroquia en Aizarna. La obra íntegra de cantería, incluyendo portadas, torre y coro, se realiza enteramente en el siglo XVI. El templo tiene cabecera ochavada, una anchura de 14 metros y tres tramos de bóvedas a la misma altura. Junto al presbiterio se levantan las capillas de las familias Iraeta y Alzolaras de Suso.

La traza o diseño para planta de la iglesia la da el cantero Pedro de Alcega. En 1529 se contrata a Juan de Amilibia, maestro cantero de Zestoa, para realizar toda la obra de cantería de los muros, labor que realiza hasta 1555. Martín de Aramendia se ocupa de cerrar la cubierta en piedra.

La bóveda de la capilla mayor tiene una clave central hacia la que concurren once nervios cruceros. Las otras bóvedas de la nave tienen un diseño poco habitual con combados cóncavos y convexos, cuyas formas redondeadas nos remiten a los cielos nervados renacentistas. La bóveda de debajo del coro, sostenida por cuatro pilastras cajeadas clásicas, tiene un diseño de triples terceletes, único caso de Gipuzkoa. Lo más novedoso en cuanto a la arquitectura es el empleo de columnas clásicas de capitel toscano como soporte para las bóvedas de la nave.

En el coro, al que se accede por una escalera de piedra, se conserva un órgano de estilo barroco (1792), obra de Juan Manuel Betolaza, así como una sillería en madera. Además, se observa el sagraio de piedra original inserto en la pared.

La torre y el campanario son obra de Gracian de Egaña, con traza de Domingo de Cardaberaz. El reloj es realizado por Benito Yeregui en 1883.

Aizarnaako eliza

Ondare artistikoa

Patrimonio artístico

Elizaren barnealdean altxor batzuk gordetzen dira, hala nola Artzainen Jaurespenaren **triptikoa**, Anberesen XVI. mendearen erdialdean eskuratu zena, jatorria adierazten duten bi esku txikiek ziurtatzen duten bezala. Erdiko taula batez eta bi orritz osatuta dago. Kanpoko aldeetan emaleak ikus daitezke erretratatuta, ziurrenik Iraeta familiako kideak, Santa Katalina eta Santiago apostoluarekin batera. Ikonografiari dagokionez, Kristoren haurtzaroko gaiak irudikatzen dira: artzainen gurtza, deikundea, Ama Birjinaren ikustaldia, epifania eta zirkunzioa.



Mende bat igaro zen hargintza-lanak amaitu zirenetik elizak, 1685ean, erretaula nagusi txurrikereskoa kontratatzeko dirua bildu zuen arte. Horrela, 1632an Zestoatik ekarritako behin-behineko erretaula ordezkatu nahi izan zuten. Mazoneriaz Juan Apeztegui arduratu zen: urreztatutako zurezko lau zutabe kiribilek osatzen dute; errematean Kristo gurutziltzatu erromanista bat dago kokatua, 1628an Pedro Garatek egin, Lorenzo Brevillaren polikromiarekin. 1688an Martin Allanegui eskultoreak Ama Birjinaren tailla nagusia bukatu zuen; 1699an leiho bat ireki zuten burualdean, Barrokoan hain ohikoa zen kontrastezko argi-efektua sortzeko. Polikromiazko estaldura 1702koa da, Juan Antonio Lizasoainek egin. 1716an osatu zen multzoa, San Josef Haurrarekin eta San Joakim eskulturak erositako alboetarako.

En el interior de la iglesia se conservan algunos tesoros, como el tríptico de la adoración de los pastores, que se debió de adquirir en Amberes a mediados del siglo XVI, como certifican las dos manitas que indican la procedencia. Está formado por una tabla central y dos batientes. En los lados exteriores se puede ver a los donantes retratados, seguramente miembros de la familia Iraeta, junto a santa Catalina y Santiago apóstol. En cuanto a la iconografía, se representan temas de la infancia de Cristo: la adoración de los pastores, la anunciación, la visitación, la epifanía o la circuncisión.



Pasa un siglo desde que acaban las obras de cantería hasta que la iglesia reúne los fondos para contratar el retablo mayor churrigueresco en 1685. Con él se quiere sustituir un retablo provisional que se había traído desde Zestoa en 1632. De la mazonería, con cuatro columnas con espiras, en madera dorada, se encarga Juan de Apeztegui. En el remate se coloca un Cristo crucificado de estilo romanista, realizado en 1628 por Pedro de Garate, con policromía de Lorenzo de Brevilla. En 1688 el escultor Martín de Allanegui entrega la talla principal de la Virgen y en 1699 se abre una ventana en la cabecera para crear un efecto lumínico de contraste, tan típico en el Barroco. El revestimiento policromo es de 1702, de Juan Antonio de Lizasoain. En 1716 se completa el conjunto con las tallas de san José con el Niño y san Joaquín.

Aizarna

Iglesia de Aizarna eliza

Ondare artistikoa

Patrimonio artístico

Arrosarioko Ama Birjinaren eta San Inazioaren XVII. mendeko alboko erretaulak, bikiak eta oso antzekoak, Lucas Caminok kontratatu zituen 1748an. Maisuak bi erretaula barroko egin zituen, baina rokokoaren antzekoa egiten duten ezaugarriekin. Eskulturaz Juan Bautista Mendizabal arduratu zen; kalitate handiko eskulturak egingo ditu, baina orain ikusten ditugun guztiak ez dira jatorrizkoak. Ikonografiari dagokionez, Arrosarioko Ama Birjina Haurrarekin, Santa Ana Ama Birjinarekin eta alboko kaleetan Santa Teresa Jesusena eta San Frantzisko ikusten ditugu. Beste aldarean San Inazio, San Sebastian, Paduako San Antonio eta San Anton daude. Bi erretaulak Pedro José Ruetek erreztatu zituen 1766an.

Azkenik, aldare txiki bat dago korupean, hainbat kronologiako elementuak biltzen dituena. Mazoneria, hau da, arkitektura, 1560 ingurukoa da eta data bereko polikromia dauka. Duela urte batzuk Bakardadearen Ama Birjinaren irudi bat eta Kristo etzan bat zituen, baina zaharberitu ondoren obra nagusi gisa estilo manieristako Kristo Kalbariora bidean ageri den taula bat jartzea erabaki zen, bibliografiak egilea Luis de Morales dela dioena. Hainbat garaitako beste eskultura batzuk ere badaude; hala nola, Azpeititik ekarritako Santa Agedaren tailla erromanista bat eta Santa Katalina eta Santa Ana hirukoitzaren bi irudi polikromatu, erretaula baino zaharragoak baina jatorri ezezagunekoak.

Los retablos laterales dieciochescos de la Virgen del Rosario y de San Ignacio, gemelos y de gran parecido, son contratados en 1748 por Lucas de Camino, que realiza dos retablos barrocos, pero con características que los acercan al rococó. De la escultura se encarga Juan Bautista de Mendizabal. Se conservan algunas de las tallas originales y de gran calidad, aunque no todas son las que se pusieron en un principio. En cuanto a la iconografía, el primero muestra a la Virgen del Rosario con el Niño, a santa Ana con la Virgen y en las calles laterales a santa Teresa de Jesús y a san Francisco de Asís. El otro altar presenta a san Ignacio, san Sebastián, san Antonio de Padua y san Antón. Ambos retablos son dorados por Pedro José de Ruete en 1766.

Finalmente, encontramos un pequeño altar en el sotocoro donde se reúnen elementos de diversa cronología: la mazonería, es decir, la arquitectura, es de hacia 1560 y cuenta con policromía de la misma fecha. Aunque hasta hace unos años el retablo albergaba una imagen de la Soledad y un Cristo yacente, tras la restauración se ha situado como obra principal una tabla de Cristo camino al Calvario de estilo manierista, que la bibliografía atribuye a Luis de Morales, así como otras obras de diferentes períodos: una talla romanista de santa Agueda que procede de Azpeitia y dos imágenes policromadas de santa Catalina y santa Ana triple, anteriores al retablo y cuya procedencia se desconoce.



Testua:
Laura Calvo García
Letren Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea
2025

Texto:
Laura Calvo García
Facultad de Letras
Universidad del País Vasco
2025